



Arartekoaren ebazpena, 2009ko azaroaren 27koa. Horren bidez Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari gomendatzen zaio ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan basurdea ehizatzeko koadrila bizkaitarren eta ez bizkaitarren arteko bereizketa ezabatzeko.

Aurrekariak

1. Basurdeen ehiztari talde batek, hainbat tokitako (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Burgos eta Kantabria) bederatzi koadriletakoak, kexa aurkeztu zuten Arartekoaren erakundearenean, ez zeudelako ados Bizkaiko Lurralde Historikoan ehizan aritzeko eskatzen ziren baldintza batzuekin.

Kolektiboak dioenez, 2008ko maiatzean, idatzia zuzendu zioten Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Diputatuari, ehizarako erregimen arrunteko lurzoruetan basurdea ehizatzeko jarritako baldintza batekin ados ez zeudela esanez. Zehazki, koadrila bateko kideen % 15etik gora bizkaitarrak ez badira, koadrila ez da bizkaitartzat jotzen eta, ondorioz, koadrila bizkaitarrek aukeratu eta gero sartzen da zozketan. Horrela, ezin du ehiza-egutegia osatzen eta mendi edo orbanik txarrenak soilik garatzen zaizkio.

Interesatuen iritziz, planteamendua baztertzaileria da eta ez da legez inola zuzitzen. Ondorioz, jarduera hori babesten zuen Foru Agindua indargabetzeko eskatu zuten. Eskaria aurkeztu zutenetik denbora igaro arren erantzunik jaso ez zuten, gure erakundeari eskatu zioten esku hartzeko.

Arartekoak kexak hizpide zituen gaiei buruzko berri eskatu zion Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari.

2. Nekazaritza Saileko Foru Diputatuak, laburbilduz, honela erantzun zigun:
 - Bizkaian basurdea debekualdien Agindu orokorrean urtero argitaratzen den arauketa bereziaren arabera ehizatzen da. 2008-2009 ehiza-denboraldia uztailaren 16ko 2897/2008 Aginduak arautu du.
 - Ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan, "orbanetan" ehizatzen dute, ezarritako gune-banaketaren arabera, alde aurretik dagokien erregistroan izena emanda behar duten ehiztarien koadrilek.
 - Mugakide ditugun lurraldeetan ohikoena tokian tokiko ehiztariei laguntzea dela, eta Bizkaiko ehiztariek jarritako kexak kontuan hartuta, Nekazaritza Sail honek bertoko ehiztariei mesede egingo zien sistema ezartzea erabaki zuen, basurde-koadrila bizkaitarrak (ehiztarien % 85 gutxienez bizkaitarrak) eta ez bizkaitarrak bereiziz.
 - Egutegia eta orbana hautatzeko prozedura zozketaren bidez ezartzen da debekualdien aginduan, eta koadrila bizkaitarrak lehenesten ditu eta bi





errondatan hautatzen dute, bizkaitarrak ez direnek erronda batean hautatzen duten bakoitzeko.

- Prozesu hori errepikatzen da harik eta koadrila bizkaitarrek aukeratzen amaitzen duten arte, Hortik aurrera, bizkaitarrak ez direnek segitzen dute aukeratzen, eurek bakarrik, errondaz erronda, euren egutegia osatu arte. Beraz, kontua ez da ezin dutela mantxa guztietan ehizatu, baizik eta bertoko koadrilek dutela lehentasuna aukeratzeko orduan.
- Foru organoak eskudunak dira lurraldeko ehiza-aberastasuna aprobetxatzea garatu eta betearazteko.
- 2008rako ehiza-debekualdien aginduaren aldeko txostena eman zuen ehizarako Lurralde-kontseiluak 2008ko maiatzaren 21ean beren beregi egindako batzarrean.
- Azkenik dio bere ustez Bizkaiko Lurralde Historikoko ehiztariei ehiza mota jakin batzuetarako lehentasun batzuk emateak, beste ehiztari batzuei jardun hori nabarmen eragotzi gabe, ez da bateraezina ehiza-aberastasunaren kudeaketa egokiarekin kudeaketa berezipean jarritako lurzoru edo ehiza-modalitateetan ehiza-egunak banatzeari dagokionez.

Jasotako erantzuna aztertu ondoren, gure gogoetak helarazi genizkion Nekazaritza Sailari. Laburbilduz, guk aipatutako eta ebazpenaren azalpenean berriro hizpide hartuko ditugun argudioen arabera, ehiztari batzuei eta besteei tratu ezberdina emateak bazterketa zekarrela ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan ehizan jarduteari dagokionez, eta Lurralde Historikoetako Foru Organoek ez dutela, gure iritziz, halako neurririk hartzeko ahalmenik.

3. Nekazaritzako Diputatuak gure azterketari erantzuteko, aurrekoan esandakoa berretsi zigun, eta esan zuen ehiza bezalako baliabide urriaren kudeaketan Autonomietako Administrazioek tokian tokiko ehiztarien alde egin ohi dutela.

Zerrendatzen ditu hainbat xedapen orokor, erakusteko tokian tokiko ehiztariei mesede egiten zaiela normalean eta, sarritan, Bizkaian baino askoz ere murriztaileagoak ere izaten direla. Beraz, lege aldetik bestelako ikuspeirik edo irtenbiderik bilatu behar bazaio, orokorra izan beharko du, desorekatua izateagatik, bizkaitarren ehiztarien kalterako izan ez dadin.

Nekazaritza Sailak uste du tokiko ehiztariei ehiza-baimenak adjudikatzen zaizkienean lehentasuna ematea onartuta dagoela Ehiza-arautegian, bai kudeaketa publikoko bai kudeaketa pribatuko kasuetan, Arautegiaren 16. artikuluan eta hurrengoetan araututakoaren haritik.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egoki deritzogu gogoeta hauek bidaltzeari:





Gogoetak

1. Nekazaritzako foru Diputatuaren uztailaren 16ko 2897/2008 Aginduek ehizarako aprobetxagarriak diren espezieak ehizatzeko garaiak arautzen ditu 2008-2009rako, espezie horien populazioa babestu eta hobetzearekin bateratuta, baita helburu horiekin bat datozen arauak eta mugak ezartzen ere. Eskuarlean dugun gaia arautzeko antzeko agindua ematen ari da 2004tik.

Agindua, besteak beste, 1970eko apirilaren 4ko Ehiza Legearen (EL) 23. artikuluan eta 1971eko martxoaren 21eko aplikatzeko arautegiaren (EA) 25. artikuluan xedatutakoa betetzeko ateratzen da. Artikulu horiek diote debekualdien Agindu orokorrak zehaztuko dituela espezie ezberdinei aplikatuko zaizkien ehizaldiak eta mugak.

Aipatutako aginduaren 2.3. artikulua basurdearen ehiza handia arautzen du, erregimen bereziko eremuetan zein ehiza-erregimen arrunteko lurzoruetan. Horrela, ehiza-eremu arruntean, koadrila bizkaitarrak eta koadrila ez bizkaitarrak bereizten ditu aurrekarietan aipatu ditugun ehiza-guneetako orbanak esleitzeko zozketan, baina ez da horrelako ezer arautzen erregimen bereziko eremuetarako.

2. Legearen 8. artikulua sailkapen hau egiten du ehiza-aprobetxamenduetan:

“1. A los efectos de esta Ley los terrenos podrán ser de aprovechamiento cinegético común o estar sometidos a régimen especial.

2. Son terrenos sometidos a régimen especial los Parques Nacionales, los Refugios de Caza, las Reservas Nacionales de Caza, las Zonas de Seguridad, los Cotos de caza, los Cercados y los adscritos al Régimen de Caza Controlada.”

Aprobetxamendu arrunteko ehiza-lurretan ehizatzeko Legeak eta Arautegiak ezarritako muga orokorrak soilik egongo dira, hots, ehiztariak ehizarako ezarritako baldintza orokorrak beteko dituzte (EL 9. artikulua), baina ez da inolako aurreikuspenik egiten lehentasun, kupo edo antzekoetan aprobetxamendu arrunteko gune horietarako ehiza-baimenak banatzen direnean.

Aitzitik, erregimen bereziko ehiza-lur batzuetan onartzen da ehiztari jakin batzuen eskusibotasuna edo lehentasuna ehizatzeko baimenak banatzeko orduan. Horrela, xehetasun handitan sartzeko asmorik gabe, hauek aipatuko ditugu:

- **Ehiza kontrolatuko** erregimeneko lurretan (EL 14. art. eta EA 16. art.), aurreikusten da ehiztari-elkarte laguntzaileak kudeatzen duenean, ehiza-baimenak elkarteko kideei soilik emango zaizkiela, baina gutxienez laurdena gordeko dela beti ehizaldian uniformeki banatuta ehiztari nazionalentzat edo atzerriko egoileentzat. Aprobetxamendua Administrazio kudeatzailearen





ardura zuzena denean, ehiza-baimena tokiko eta probintziako ehiztariei lehenetsiko zaie, baina % 25 utziko da gainerako ehiztarientzat.

- Antzera, hemen interesatzen zaizkigun ondoreetarako, arautzen da **ehiza-esparru sozialen** kontua, ehiza-erregimena aukera-berdintasunean oinarrituta antolatzeko helburua duenez gero. Horrela, esparru horien erabilera espainiar ehiztarientzat soilik da, eta baimenen erdia probintzian bizi diren ehiztarientzat lehenesten dira.
- Era berean, **ehiza-aterpeek, esparru pribatuek** eta **tokiko esparruek** berriazko arauketa dute, erregimen bereziaren pean dauden lur mota guztiak xeheki aztertzea sartu beharrik gabe.

Laburtuz, ondore horietarako azpimarratu behar dugu aprobetxamendu arrunteko ehiza-lurretan ez dela ehizan aritzeko lehentasunezko kuporik onartzen, eta ehiza-aprobetxamendu bereziko lurretan, zer figura berriazko hartzen den arabera, onartzen direla lehentasuna eta baita eksklusibotasuna ere ematen diren baimenetan, baina kasu bakoitzean zehazten diren portzentajeak gordeta.

Ildo horretatik, eta erakunde honi inola ere ez dagokion arren, beste autonomia administrazio batzuek emandako xedapenak legezkoak diren ala ez aztertzea gure eskumenen esparrutik kanpo geratzen delako, Sailak aipatu dituen horiei buruzko iruzkina egingo dugu. Aipatutako xedapen orokor horiek guztiak erregimen bereziko eremuei buruzkoak dira, zehazki, ehiza-esparru eta erreserba erregionaletakoak, eta hori, aipatutako arauen arabera, onartzen da aprobetxamenduen baimenak banatzeko orduan lehentasunak jartzea.

Era berean, Ehiza-arautegiaren 16. artikuluan eta hurrengoetan tokiko ehiztariak lehenestea aurreikusten delako argudioa, artikuluko horiek guztiak erregimen berezietako kasuei buruz direnez, ez da baliagarria aprobetxamendu arrunteko ehiza-lurretan aplikatzeko.

Lehenengo oharrean esan dugunez, 2008-2009 denboraldirako debekualdien Aginduak ez dio ezer erregimen bereziko eremuetan basurdea ehizatzeke lehentasunak ezartzeari buruz, lur horietan, aipatutako arauen haritik, lehentasunak jartzea legokeenean araututako kasu horietan. Baina erregimen arrunteko eremuetan, ordea, ez dira bertoko koadrilak lehenetsi behar.

3. Sailak baliatzen dituen eskumeni dagokienez, Nekazaritzarako Diputatuak ohartarazten du Lurralde Historikoetako foru Organoek lurraldeko ehiza-aberastasuna aprobetxatzeko erregimenaren alorrean jardunbideak garatzeko eta betearazteko eskumenak dituztela, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.b)3 artikulua arabera.

Horrela, bere ustez, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikagarria den Ehiza-arautegiaren 25. artikuluko 12. atalean ahalmena ematen zaio Foru





Administrazioari espezie ezberdinei aplikatuko zaizkien mugak eta ehizaldiak finkatzeko eta, zehazki, eskualdeak mugatzeko eta eskualdeen barruan aztarna-txakurrekin edo jazarpen-txakurrekin uxaldietan zer espezie ehizatu daitekeen zehazteko, mugatzekotan, zenbat pieza harrapatu daitezkeen, zenbat ehiztarik edo txakurrek parte har dezaketen mugatuz.

Debekualdien agindu orokorretan uxaldietan zenbat ehiztarik parte har dezaketen mugatzeko eskumena dute, urteko ehiztarien kupoak jartzea babes, kontserbazio eta aprobetxamendurako neurriak hartzeko foru eskumenaren barruan sartuko litzateke eta.

Alabaina, hemengo eztabaidagaia ez da zenbat ehiztarik parte hartuko duen eta zenbat pieza ehizatuko diren "orban" bakoitzean, baizik eta behin sailak, besteak beste, eremu bakoitzean zenbat ehiztarik esku har dezakeen eta zenbat pieza harrapa daitezkeen zehaztu duenean, interesatutako ehiztariak kuota horiek nola banatuko dituzten argitzen duen arauketa. Horretan bereizi ditu koadrila bizkaitarrak eta ez bizkaitarrak Nekazaritza Sailak, gure iritziz legez kontra; izan ere, Ehiza-legeak eta Ehiza-arautegiak ez baitute, aztertu dugun arautzearen arabera, inolako lehentasunik edo eksklusibotasunik aurreikusten inolako ehiztariantzat kexak hizpide duen ehiza-aprobetxamendu arrunteko eremuetan.

4. Amaitzeko, ez dugu jakin Sailak, administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua interesatuek horri buruz egindako eskaria ebatzi duenik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

18/2009 GOMENDIOA, azaroaren 27koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari egina

1. Ezabatu koadrila bizkaitar eta ez bizkaitarren bereizketa urtero ematen duzuen debekualdien agindu orokorrean ehiza-erregimen arrunteko lurretan basurdea ehizatzeke.
2. Edozelan ere, dagokion eran erantzun kexa jarri zuten ehiztarien kolektiboek bere garaian bideratutako eskaria.

